ALBISTEA EDO BERRIA

❖ **Pertsonen hitzak, albisteetan.**

PERTSONEN HITZAK, ALBISTEETAN

Albisteetan, albistearen gaiarekin loturiko pertsonen hitzak adieraz daitezke.

- Norbaitek esandakoa hitzez hitz adierazten denean, berak esanda bezala adierazten denean, kakotx (" ") artean idazten da.
- Hitzez hitzeko aipamenaren amaieran puntuazio markarik jarri behar bada, kakotxen ondoren jarri behar da.
- Hitzez hitzeko aipamenak zuzenean edo *dio, dionez, esan du, esan duenez...* aditz-formen bitartez txerta daitezke testuan.

Hona hemen hitzez hitzeko aipamenak txertatzeko hainbat modu:

- *"Egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat"*. Hala dio Indiako Zientzia ministroak.
- *"Egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat"*, esan du Indiako Zientzia ministroak.
- Indiako Zientzia ministroak dioenez, *"egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat"*.
- *"Egungo ordenagailuek* —dio Indiako Zientzia ministroak— *ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat"*.

- **Adibidez:**

1. Dusko Ivanovic, baskoniako entrenatzaileak esan du:

   " Denboraldi oso ona egiten ari dira, intentso jokatzen ari dira".

2. Magallán: "Futbolaz hitz egiteko denbora izango dugu".

❖ **ZERGATIK?**

- Albiste bat idazterakoan gertaeraren zergatia edo arrazoia ematen duen informazioa idatzi beharko duzu.

Adibidez:

Zergatik gertatu da?

Galdera horri erantzuteko modu asko dago.

GERTAERA	ZERGATIA edo ARRAZOIA
Saria eman diote.	*Baztertuen alde lan handia egin du.*

*Baztertuen alde lan handia egi**teagatik** saria eman diote.*

❖ **Zure txanda!**

- Albisteen idazketarekin zerikusia duten hainbat gauza ikasi dituzu jadanik. Ikasitako guztiak praktikan jarri eta zure albistearen zirriborroa idatziko duzu.

.....
.....
.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....

.....
.....